


Astrozitoak gakoak dira parkinsonaren garapenean

Parkinsona garuneko neuronak kaltetzearekin erlazionatuta dagoen gaitza da: neurona dopaminergi-koetan alfa-sinukleina izeneko proteina metatzen da, eta, horren ondorioz, neuronak endekatu eta hil egiten dira. Hala, ezin dute dopamina sortu, mugimenduan eta funtzio kognitiboan ezinbesteko funtzioa duen neurotransmisorea. Baina neuronak ez dira parkinsonen inplikaturik dauden garuneko zelula bakarrak. EHUko neurozientzialariek iradoki dute garuneko glia zelula batzuk ere kritikoak direla: astrozitoak, zehazki.

Astrozitoak oso ugariak dira garunean, eta, besteak beste, neuronei mantenguzaiak eta energia ematen dizkiete. Hortaz, ezinbestekoak dira garunaren funtzionamendu egokirako. Orain arte, parkinsona ulertzeko ikerketak neuronen heriotza ikertzera bideratuta egon dira, baina [ikertzaileek frogatu dute astrozito disfuntzionalak alfa-sinukleina proteina toxikoa transmititzen dutela](#). Hala, neuronen heriotza eragin eta parkinsona hedatzen laguntzen dute. ●



Astrozitoak ezinbestekoak dira garunaren funtzionamenduan, eta parkinsonaren garapenean ere zeresan handia dutela ikusi dute EHUko ikertzaileek. ARG.: Wikimedia Commons.

Einsteinioaren propietate batzuk neurtzea lortu dute

Einsteinioa aztertzeko moduan sortzea eta haren propietate batzuk neurtzea lortu dute Berkeley Laborategiko eta Georgetown Unibertsitateko ikertzaile batzuek. 250 nanogramo sortu dituzte, eta, lagin horrekin, besteak beste, lotura-luzera neurtu ahal izan dute (lotutako atomoen arteko distantzia). [Nature aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak](#).

Eu	Gd	Tb	Dy	Ho	Er	Tm	Yb	Lu
Am	Cm	Bk	Cf	Es	Fm	Md	No	Lr

Einsteinioa 1952an aurkitu zuten, Berkeley Laborategian, lehen hidrogeno-bonbaren hondakinetan. Geroztik, oso esperimentu gutxi egin ahal izan dira elementu horrekin, sortzeko oso zaila eta oso erradioaktiboa baita.

Hain zuzen ere, lagin erabilgarri bat lortzea izan da ikertzaileen erronka handiena. Einsteinio-254 isotopoa erabili dute, elementuaren isotoporik egonkorrenetako bat, 276 eguneko erdibizitza duena (atomoen erdiak desintegrazteko behar den denbora).

Espero ez zituzten propietate fisiko eta kimiko batzuk aurkitu dituzte, eta lotura-luzera neurtu ahal izan dute. Azken hori oinarritzko propietate bat da; elementuak beste atomo eta molekula batzuekin nolako elkarrekintzak dituen ulertzeko balio du. ●